


Francesco Tonucci 'Frato'



Haurren begiradaren bila

Haurren begiradaren bila

- <http://www.youtube.com/watch?v=IR7EL0YCZx0>

Haurra eta eskola



Haurra eta hiria

Haurrak jakin badaki

Ez da egia umeak ez dakiela ezer, orri zuri bat dena, eta hezkuntzaren bitartez bertan 'idatziz' jakintza bereganatzen duela.

Egia justu kontrakoa da.

Haurrak jakin badaki

Umearen garapenaren garai funtsezkoena jaio eta eskolara joan aurrekoa da. Hor izaten ditu irakaspen handienak, ondorengo guztiaren oinarri izango direnak.

Umea eskolara ez doa sakelak hutsik dituela, bete-beteta baizik, eta dakarren hori taldean erakus/irakas/osatu/garatu/eraiki dezan da eskolaren betebeharra.

Baina, haurrak nola ikasi du dakiena?

Jolasaren bidez. Mugarik ez duen jakin minarekin, dakienarekin eta ez dakienarekin, munduaren konplexutasunaren aurrean jartzen da umea.

Eta jakin nahi duenarekin.

Askatasun osoa du jolasean, egin ezin duena asmatu egingo duelako.

Jolas librea eta espontaneoak helduen ikerketa zientifikoaren, arte sorkuntzaren edo mistikaren pareko da.

Jolasa zer da? Nola jolasten da?

Geure buruarentzat galderak:

Non jolasten duzue?

Zein dira jolaserako dituzuen txoko maiteenak?

Norekin jolasten duzue?

Ze jolasetara?

Jolasten **berrikasi** beharrean al gaude?

Hau jolasa al da?

“Etxean, ezkaratzen edo kalean jolasteko duen lekua kentzen badiogu, kilometro batera dagoen jolas-parkea erraldoia eta ederrena trukean eskainita ere, kendu egin diogu. Jolas-parkea urruti badago, heldu batek eraman beharko du, haren ordutegien arabera. Urruti badago, arropa aldatu beharko diogu, txukun jantzi, ez lotsatzeko. Txukun janzten badugu, ezin da zikindu, eta ezin bada zikindu ezin du jolastu. Laguntzaileak zain egon behar badu, zain dagoen bitartean umea zelatatuko du, eta zelatatzen zaituztenean ezin da jolastu”.

Jolasa denboran galtzea da

Jolastea, 'denbora galtzea da', eta denbora galduz bihurtzen gara heldu.

Jolastea denboran galtzea da eta munduarekin topatzea.

Jolastea plazerra da, eta horregatik jolasean dabilen umea jateaz ere ahaztu egiten da.

Jolasten utzi

Orain jolastokiak dituzte. Denak lauak, denak ordekan, ezkutaleku posiblerik gabe, helduek une oro begi bistan izan ditzaten.

Utzi umeei jolastokia diseinatzen: zer nahiago dute txirrista eta zabuak, edo lokatza eta putzuak, mendiak, zuloak eta txoko ezkutuetak?

Haurrak eta hiria

Gaurko hiriak ez dira humanoak, ez dira bizitzeko egokiak:

- Leku itxiz eta espezializatuz bete dira: umeak parkean, liburutegian, haurtzaindegian, ludotekan...
- Edadetuak zahar etxean, eguneko zaintza guneetan...
- Helduak (gizonezkoak, bereziki) erdigunean.
- Lotarako lekuak, periferian.
- Kotxeak, nonahi, oinezkoen lekua janez.
- Erosketak, zentro komertzialean...

Haurra, adingabekoa, adinez txikia

Legeak: adingabeko; ez txiki, txikiagotua baizik.

Denok gara beste batzuk baino adinez txikiagoak edo handiagoak, baina umea beti da adinez txikia.

Horrek esan nahi du funtsezko eskubide bat ez zaiola ezagutzen: gaur egunerako eskubidea.

Etorkizunekoa

Umea izango denaren arabera, izatera iritsiko denaren arabera, neurtzen da eta hor du bere balioa.

Etorkizunerako eskubidea baino ez du.

Etorkizuneko herritarra da, ez herritarra.

Zein da haurraren neurria? Zergatik haurraren neurrira?

Aniztasunarena, baina baita aukera berdintasunaren.

Taldearen neurria da, lagun taldearena.
Komunitatearena.

Haurraren berezko aniztasuna onartzea,
aniztasun guztien bermea da.

Gizatasunaren neurria delako.

Hiria/herria umeentzat egokiagoa denean,
guztiontzat izango da egokiagoa.

Zergatik umeen parte hartzea?

Geure buruarentzat galderak:

Zergatik da garrantzitsua umeak entzutea?

Umekin nola jokatu ohi duzu?

Nola jokatu ohi zuten zurekin ume zinela?

Nola egin daiteke umeen parte hartze benetakoa bultzatzeko?

Haurraren neurrira nola iritsi

Umeei protagonismoa eman

Hitza eman

Iritziak ematea baimendu

Helduok entzun

Umeak ulertzeko gogoz entzun

Eta esaten dutena kontuan hartzeko gogoz
entzun

Haurraren neurrira nola iritsi

Inork ezin du umerik ordezkatu eurei kontsulta egin, eurak inplikatu eta eurak entzun gabe.

Umeekin hitz egitea ez da guk sortutako arazoak konpon ditzatela eskatzea.

Euren ideia eta proposamenak kontuan hartzea baizik.

Ez da erraza umeei hitza ematea, ezta esaten dutena ulertzea. Baina ikasi egin behar da.

Haurrak hitz egin dezan

Estereotipoetatik libratzen lagundu behar zaie, erantzun jakinetatik, helduon edo telebistaren ereduz ikasiak dituztenetatik.

Ausartu daitezzen bultzatu behar dira.

Ez da galderak egin, eta eskua altxatzen lehenak erantzutea. Ez dute gu gustura uzteko erantzun behar.

Desira dezaten, asma dezaten bideak eman behar zaizkie. Orduan sortuko dituzte ideiak eta proposamenak.

Haurrak hitz egin dezan

Hitz egingo badute, gune egoki bat eman behar zaie.

Presarik gabe, **kontrolik gabe**, ardurarik gabe, hanka sartzeko beldurrik gabe, txorakeriak esateko beldurrik gabe.

Nahiago duten **bitartekoarekin**: marrazkia, hitza, idatzia, eraikuntza, kantua, dantza, antzerkia, jolasa...

Ezagutzen dutenaren gainean: **euren bizitzako** parte diren gauzan gainean eztabaidatu behar dute: auzoaz, eskolaz, euren beharrez, nahiez.

Nola entzuten da haurra?

Belarri berdea behar du helduak.

Belarri heldu gabea, helduarentzat.

Desikasi egin behar da.

Kuriositate handia behar da, atentzioz entzun, sentiberatasuna, sinpletasunez.

Konbentzitura egon behar dugu gure umeeek zer esan eta zer eman badutela, eta esateko dutena guk dakigunetik desberdina dela, eta horregatik merezi duela benetan pentsatzen dutena azaltzen uztea.



Nola entzuten da haurra?

Euren proposamen sinpleetatik harago ikusten ikasi behar du helduak.

Entzuteak esan nahi du euren ondoan esertzea, euren posizioak defendatzen laguntzeko prest egotea. Hori da tratua.

Umeeak hau ulertzen dutenean, dena da erraz eta argia.



Ez da antzezpen bat

Ez diegu helduak imitatzeko jolasa egiteko aukera eskainiko, demagun udal kontseilu txiki bat antzetzuz. Ez.

Ez da umeak pozik uzteko jolas bat.

Ondorio guztiekin entzun eta jarraitu behar da umea. Ez nahi dugunean bakarrik.

Eraldatzeko da, benetakoa izateko, zintzotasunez planteatzekoa.

Eskaini ez, eraldatu

Gizonezko, zuri, langilearen neurritik umearen neurrira jaitsi/igo behar da.

Kontua ez da umeei ekimena, aukerak eta egitura berriak eskaintzea. Kontua gizarteak begirada umearen begiradaren pareraino jaistea da, eta hortik eraiki eta eraldatzea ingurua.

Haurra herritar izan dadin

Gizarte aldaketarako umearen neurria onartzen badugu, bide berri batean abiatu behar da, orain arteko helduen arteko konpromisoak eta egiteko moduak aldatuko dituen hala beharrez.

Herriaren gobernantza modu berria behar da.

Gobernantza modu berria

'Haurren Hiria' proiektuan, bi moduz egiten dute:

1. Alkateak gidatutako ekimena izatea.
2. Herritarrek elkarteen edota mugimenduen bitartez proposatu eta sostengatuko dutena.

Bietan, Udal Laborategiak sortuz.

Irrien Lagunak Oarsoaldean-en, zein aukeratu dugu?

Bien baturatik sortu da gurea: udala eta herritarrak, elkarteak, eskolak, ekimenak...

Demokrazia esperientzia

Demokraziak esperientzia bat izan behar du.

Demokrazia ezin da irakatsi, **demokrazia bizi egin behar da.**

Demokrazia bizitzeko ume eta helduentzat kudeaketa aukera errealak eraiki behar dira.

Haurren hirietako hainbat lorpen

Kalean, kaleetan, patio eta ezkaratzetan, jolasteko eskubidea eta betebeharra udal arau bihurtu eta praktikan jarri.

Eskolara oinez joatea. Oztopoak kendu, arriskuak ekidin, auzotarrei laguntza eskatu umeak seguru ibili daitezzen...

Umeen lagunak: udaltzaingoa, edadetuak, dendariak, auzoa...

Haurren hirien hainbat lorpen

Bide gorriak (propioak, bizikletentzat soilik, zabalak, seguruak).

Oinezkoentzako espaloi zabalak (familia oso bat kabitzeke modukoak).

Oinezkoen estatutua onartu.

Haurren hirietako hainbat lorpen

Jolasaren eguna. Jai eguna, lanegun baten: lana utzi, eskola ludoteka handi bihurtu; udal langileak, dendariak, jubilatuek, langileak jolasean jarri kaleetan.

Ordu t'erdi, egunean, kiroldegiak doan, jolas librerako. Zergatik ordaindu behar dute herriko umeei jolasteko? Jolasa, ez entrenamendua, begiralerik gabe, jolas librea.

Haurren hirietako hainbat lorpen

Parkeak kendu eta jolas librerako lekuak jarri:
belazeak, basoak, eremu irekiak...

Umeen kartelak (umeek eginak edota umeak
agertzen direnak) jarri kaleetan. Ume baten izena
jarri kale bati.

Umeak kale gidari: hartu heldu bat eskutik, eta
erakutsi diezagutela 'euren' hiria.

Haurra neurgailu

Ingurugiro neurgailuak erabili ohi diren bezala, umea neurgailutzak hartu hiri/herri/auzoen bizi kalitate maila neurtzeko.

Azken finean, eraldatu

Entzuten desikasi

Jolasten berrikasi

Jolasten utzi

Herria berrasmatzen ikasi

Eraldatu ingurua, eraldatu gure buruak, eraldatu
gure harremanak.